BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5345

EBAZPENA, 2019ko azaroaren 14koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez ordezkapenetarako dirulaguntzak onartzen baitzaizkie eranskinean aipatzen diren udal-administrazioei.

Dirulaguntza horiek euskara-eskoletara joateagatik egindako ordezkapenak diruz laguntzeko ematen dira, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 7. artikuluari eta ondorengoei jarraikiz. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta, bestetik, arauak ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-administrazioetako langileak ordezkatzeko dirulaguntzetarako.

Ikusi da ordezkapenak justifikatzeko udal-administrazioek aurkeztu duten dokumentazioa, eta dokumentazio hori aginduan ezarritakoarekin erkatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eranskinean aipatzen diren udal-administrazioei bakoitzarentzat izendatzen den diru kopurua ematea, egindako kontratazioen dirulaguntza gisa. Emandako dirulaguntza 2019ko uztaila-abendua epeari dagokio, gehienez ere. Hala ere, diru kopuru hori alda daiteke, besteak beste, ordu-kreditu eta asistentziari buruzko datuak jaso eta kontuan hartu ondoren.

Ebazpen honen aurka, ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikuluak xedatzen duen bezala.

Hala ere, aldez aurretik, erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezezta dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea, berariazko akordioa jaso edo isilbidez ezeztatuta jo eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 14a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

ERANSKINA

2019ko uztaila-abendua

Erakundea	Modulua	Diruz lagundutako hilabeteak	Ikasle kopurua	Dirulaguntza	Guztira
Vitoria-Gasteizko Udala	25	3	1	6.354,09	6.354,09
				Guztira	6.354,09